

Lehia erakargarria Urrezko Aizkoran

Apirilaren 15ean Urrezko Aizkorako kanporaketa bikaina izango da Beheko Plazan



Santelmoetako egitaraua urtero etorri ohi da kirol ekitaldiez beterik, eta aurtun ere hamaika aukera izango dute kirolzaleek gozatzeko. Goi mailako pilota partiduak, trainerutxoak, hondartzako futbol txapelketako finalak... Ohitura bihurtu dira azken urteotan. Bada, ordea, berrikuntza aipagarrikerik aurtengo egitarauan. Izan ere, Urrezko Aizkora txapelketako seigarren kanporaketa jokatu da Zumaian apirilaren 15ean, osteguna, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Garai batean ohikoak ziren apustuak santelmoetan, eta udalak aizkora hotsak berreskuratu nahi izan ditu.

Urrezko Aizkora txapelketa gaztea da, bigarren aldia baitu aurtengoa. Hala ere, hain denbora gutxian indar handia hartu du aizkorazaleen artean, oso txapelketa erakargarria baita. Aurtun 11 aizkolarik hartuko dute parte. Iazko emaitzak eta aizkolarien maila kontuan hartuta, eskailera sistema bat prestatu dute. Orain arte lau kanporaketa jokatu dira, eta bosgarrenetik aterako da santelmoetan Senosiaini aurre egingo dion aizkolaria. Arria V.a eta Nazabalen arteko onena izango da Zumaian. Printzipioz, Nazabal izango da Senosiainen aurkaria, oraingoz Arria V.ak baino maila hobea baitu. Zumaian irabazten duenak Mindegiaekin neurtu behar-

Trainerilak bigarren igandean

Aurtengo berririk aipagarriena Urrezko Aizkora da, baina aurtun ere ez da faltako santelmoetan tradizio den trainerila proba. Euskal Herriko trainerila onenak Zumaian izango dira, Santelmoetako XVII. Sarian nor baino nor aritzeko. Estropada, arratsaldeko 18:00etan hasiko da, eta Aita Mari koak herritarren aurrean postu on bat lortzen saiatuko dira. Oraindik arraunketa denboraldia hasi baino ez da egin, baina Euskal Ligan kadeteek eta infantilek lortu dituzten emaitza bikainak ez dira oharkabeen pasatu zumaianren artean. Ea aurtun traineru nagusiak lan ona egiten duen.

ko ditu indarrak, eta hortik finalerdietara, Joxemiel Peñagarikanoren aurka —iazko irabazlea—. Beste finalerdian Olasagasti eta Larretxea izango dira aurrez aurre. Finala Azpeitian jokatuko da.

Beraz, Zumaian ikusi ahal izango den kanporaketa goi mailakoa dela esan daiteke. Senosiain zein Nazabal,

Lehen Mailako aizkolaria dira, Euskal Herriko Txapelketan emaitza onak lortutakoak. Senosiain Olaguekoa da (Nafarroa), eta iazko Euskal Herriko Txapelketan bosgarren postua eskuratu zuen. Hala ere, bere lorpen handiena Donostiako Urrezko Kopan lortutako garaipen handia izan zen. Apirilaren 4an apustua izan zuen Mindegiaeren aurka, eta ez da dudarik sasoi betean iritsiko dela Zumaia. Aizkolaria gaztea da, eta bizpahiru urte daramatza goi mailan.

Floren Nazabalek esperientzia handiagoa du Lehen Mailan, nahiz eta oraindik nahikoa gaztea den. Etxarri-Aranazkoa da, eta azken zazpi hilabeteetan lehiatik kanpo izan da, bizkarreko arazoak direla medio. Nahiz eta iazko Euskal Herriko Txapelketan ezin izan zuen parte hartu, sei onenen artean dagoela esan daiteke zalantzarik gabe. Martxoaren 21ean jokatu zuen kanporaketa Beitiaren aurka, eta 2:28ko aldea aterazio. Iaz, Senosiainen aurka jokatu zuen Urrezko Aizkorako bigarren kanporaketa, eta galdu egin zuen.

Arrakasta handiko txapelketa

Urrezko Aizkora arrakasta handia lortzen ari da aurtun, antolatzaileen eskaintza oso erakargarria baita. Besagaintza enpresa da txapelketa aurrera eramateaz arduratzen de-



KOLDO ALDUNTZIN



Senosiain sasoi betean iritsiko da Nazabalen kontrako lehiara.

Senosiain eta Nazabal Lehen Mailako aizkolaria dira, Euskal Herriko Txapelketan emaitza onak lortutakoak

na, Kaikuren babes ofizialarekin. Aurtun Euskal Telebistak saio guztiak eskaintzen ditu, zuzenean edo diferituan. Gainera, saio guztiak doan izaten dira ikusleentzat. Aurtun zortzi milioi pezetako aurrekontua du Urrezko Aizkorak, eta irabazleak milioi bat jasoko du sari modura. Bigarrenak 600.000 pezeta, eta kanporaketa bakoitzeko aizkolaria guztiek jasotzen du-

te diru kopuru bat (guztira bost milioi pezeta banatzen dira). Hori bai, egurrak aizkolariek jarri behar dituzte, erdi bana. Zumaian egin beharko duten lana honako hau da: 45 ontzako enbor bi, kanaerdiko bi, 60 ontzako lau eta oinbiko bi. Iaz Joxemiel Peñagarikanok irabazi zuen Azpeitian jokatutako finalean, Donato Larretxeari 1:56ko aldea aterata.

AMETZA TABERNA

FESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

Santiago auzoa, 4 • © 943 14 33 70 ZUMAIA



ERROTA

OPIL - OKINDEGIA
OKINDEGI ARTISAU

ERRIBERA, 2 • 943 14 30 01
SANTIO AUZOA, 36. PABILIOIA • 943 86 00 00

ADI ELEKTRONIKA

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN SALMENTA ZERBITZUA
ETA KONPONKETA - SUKALDEKO ALTZARIAK

Etxezarreta, 23 - Tel.: 943 14 34 15 - 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Izaga, 1 behe
Tel./Faxa: 943 14 34 02

TAILERRA: Trenbide pasealekua, 5 - 1. Pab.
Tel. mugikorra: 610262617 - 619747117



Artadi auzoa
Tel.: 943 86 21 89